

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

3 milioi euro inguru bideratu dira baso- lanetarako, naturaguneak kudeatzeko eta baso-produktuetan inbertitzeko

Erakunde publikoek zein pribatuek egin ahal izango dute eskaera

Asteazkena, 2017.eko abenduak 13

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan lortu dituen bi akordioaren bitartez, baimena ematen zaio Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiari hainbat urtetarako gastuak egiteko, guztira 2.830.000 eurokoak, baso-lanetarako, naturaguneak kudeatzeko eta baso-produktuetan inbertitzeko laguntzen deialdiak susta ditzan. Deialdiok 2018ko lehenengo hiruhilekoan egingo dira.

Batetik, guztira 2.300.000 euroko gastua onartzen da 2018-2019 denboraldirako, toki-erakundeek sustatutako **baso-lanei laguntzeko** (2 milioi euro) eta eragile eta elkarte pribatuek sustatutakoei laguntzeko (300.000 euro). Zenbateko hori 2019ko ekitaldiaren kargura ordainduko da.

Bestetik, 80.000 euroko gastua onartzen da Nafarroako 2014-2020 ko Landa Garapenerako Programan (LGP) sartuta dauden **naturagune babestuak edo natur balio handikoak modu jasangarrian kudeatzeko** laguntzetarako.

Laguntza horietan, ekintza hauek sartzen dira, besteak beste: larreak eta mendietako bestelako produktu naturalak hobetzeko obrak eta lanak; basoak hobetzea, bereziki haien leheneratze naturala sustatzeko; eta baso-zerbitzuetarako bideak eraikitzea. Horiez gain, hauek ere sartzen dira: basoa birpopulatzea, zurak eta egurrak aprobetxatzeko; mendietako produktuen komertzializazioa arrazionalizatzea; mendien gizarte- eta olgeta-erabilera sustatuko duten proiektuak eta obrak egitea; eta baso-jabetzen eta -kooperatiben taldeak eta elkarteak sustatzea.

Inbertsioak baso-teknologietan

Bestalde, hainbat urtetarako 450.000 euroko gastu-konpromisoa, 2018ko ekitaldiaren kargurakoa, hartzea onartzen da, **baso-teknologietan eta baso-produktuen eraldaketan, mobilizazioan eta komertzializazioan inbertitzeko** laguntzetarako, LGPren barruan. Laguntza horiek mendien edo baso-lursailen jabeei (publikoak zein pribatuak) zuzenduko zaizkie, bai eta baso-ustiaketan jabeei, baso-elkarteei eta baso-industriei eta -enpresei ere.

Zehazki, baso-ustiaketei aplikatzen zaien teknologia hobetzera eta zura lehen aldiz eraldatzen duten industrietara bideratuko dira laguntzak.

Gainera, laguntza publiko hori Nafarroako Baso Planetik dator; hark sektorerako duen berariazko xedea da Nafarroarentzat baso-industria

egoki eta lehiakorra garatzea, eta enpresak modernizatzeko, berrikuntza teknologikorako eta proiektio komertzialerako baldintzak sortzea, sektore horrek pisu handia izan dezan Foru Komunitatearen ekonomian, landa-eremuetako bizitza dinamiza dezan eta herrietan biztanleria aktiboa manten dezan, eta mendiak modu jasangarrian kudeatzen lagundu dezan.